


EAE-KO EKONOMIAREN AURREIKUSPENAK


EAEko BPGa gorantz zuzendu da berriro

Barne produktu gordina Urte arteko aldakuntza tasa




Kontu ekonomikoen laugarren hiruhilekoko datuak ezagututa eta testuinguruko hipotesiak gaurkotuta, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak gorantz berrikusi du 2018rako ekonomia hazkundera, orain %2,6an kokatu duena, aurreko datua baino hamarren bat gorago dagoela. Adierazi behar da azken hori goranzko laugarren zuzenketa dela, kanpo zein barne testuingurua aurreikusi zena baino hobeagoa delako. Hiruhilekoka aztertuta, bigarren hiruhilekotik aurrera moteltze leuna aurreikusten da, azken kontsumoaren bilakaera 2017an izan zuena baino apalagoa izango delako, nahiz eta oraindik gehikuntza nabarmena lortuko duen. Kapital eraketa gordinak, berriz, bilakaera egonkorragoa erakutsiko du eta ez du aldaketa handirik ezagutuko 2017ko emaitzaren aldean. 2019an EAEko ekonomia %2,2 haziko dela aurreikusten da.

Azken kontsumoa Urte arteko aldakuntza tasa




Kapital eraketa gordinak Urte arteko aldakuntza tasa




Industriaren balio erantsia

Urte arteko aldakuntza tasa




Eraikuntzaren balio erantsia

Urte arteko aldakuntza tasa



Zerbitzuen balio erantsia

Urte arteko aldakuntza tasa




Sektoreen ikuspegitik, industriarentzat aurreikusituen den moteltzea nabarmendu behar da. Hala ere, urteko batez bestekoa 2017koa baino handiagoa izan daiteke. Eraikuntzak ere apaltzeko joera arina erakutsiko du urtean zehar. Azkenik, zerbitzuek 2017ko amaierako bizitasunaren antzekoa izango dute.

Aurreikuspen horretan, enplegu sorrera %1,9an kokatu da 2018an, azken hiru urteetan eskuratu-tako tasetatik nahiko hurbil. Horrek 17.500 lanpostu garbi gehituko dizkio EAEko ekonomiari. Pausoz pauso, langabezia tasak behera joaten jarraituko du eta 2019ko amaieran %10,0aren azpian egon daiteke.

Enplegua

Urte arteko aldakuntza tasa



Langabezia tasa

Urte arteko aldakuntza tasa

